



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2012ko uztailaren 10a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

Jon Agirresarobe Lopetegi zinegotziak (Bildu) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda irakurri baino lehen, udal idazkariak hartzen du hitza eta bertaratuei proposatzen die beste gai bat sartzea, gai-zerrendaz kanpo: onartzea, egoki bada,



Udalaren adierazpen instituzional bat, Orio 'Alzheimerrarekin solidarioa den herria' izendatuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA beste gai bat sartzea udalbatzar honetako gai-zerrendaz kanpo: onartzea, egoki bada, Udalaren adierazpen instituzional bat, Orio 'Alzheimerrarekin solidarioa den herria' izendatuz.

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren Testu Bategina. Testua Orioko Udalak sustatu du eta Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak idatzi dute.
- 2.- Dagozkion udalbatzar erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko Hirigune Historikoaren Plan Bereziaren 3. hirigintza jarduketaren (Kale Nagusia) garapenari buruz.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko herriko jaieguna 2013. urterako.
- 4.- Onartzea, egoki bada, EAJ udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, hondakinen kudeaketari buruzkoa.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN NAGUSIAREN TESTU BATEGINA. TESTUA ORIOKO UDALAK SUSTATU DU ETA MANU ARRUABARRENA ETA SANTIAGO PEÑALBA ARKITEKTOEK ETA MIKEL IRIONDO ABOKATUAK IDATZI DUTE.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak, 2012ko maiatzaren 8ko bilkuran, ondoren hitzez hitz jasotzen den erabakia hartu zuen (2012ko maiatzaren 21eko GAO, 95. zenbakia):



Udal izapideak egin ondoren, «Orioko Udal Plangintzako Hiri Antolaketako Arauak Egokitzeko espediente» aurkeztu dute, Foru Aldundiak behin betiko onar dezan.

Orioko Hiri Antolaketako Plan Orokorren dokumentu berriaren xedea da Plangintzako egungo Hiri Antolaketako Arauak egokitzea Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen baldintzetara, lege horren bigarren xedapen iragankorrean jasotako agindua betez.

Hori dela eta, aurreko plangintzako proposamenak, funtsean, mantendu egiten dira eta zenbait zehaztasun, zuzenketa eta aldaketa sartu dira eremuren baten mugaketari, neurriei eta kalifikazio globalari dagokienez; espazio libreen erreserban doiketak egin dira, trukaketak erabilera globaleko eremuen artean eta baldintza gainjarriak ezartzen dira lurzoru urbanizaezinaren ganean, besteak beste. Bestalde, mugatutako eremuen deitura ordinal bera mantentzen da eta, horri esker errazago ulertzen da dokumentu batetik bestera igarotzean.

Zehazki, dokumentuak aipatzen du eremu batzuen mugaketa doitu egin dela. Hala, aldaketa nabarmenenak eragina dute, alde batetik, 11. arean, lurzoru urbanizaezineko 20.000 m² erantsi baitzaizkio, eraikitako eremuaren eta hondartzaren arteko espazioari dagozkionak; bestetik, Txurruka 13. arean, orain lehen baino 3.000 m² inguru lurzoru gehiago baitu mota berekoa; eta, azkenik, Mutiozabal 2. arean, 2.639 m² gehitu baitira.

Era berean, doitu egin da espazio libreen sistema orokorra, hori eratzen duten elementu batzuen izaera aldatuta, eta, horrela, mugatutako azalerak bete egiten du legezko estandarra.

Lurzoru urbanizaezinaren antolaketari dagokionez, dokumentuak ia kalifikazio global bera mantentzen du, nahiz eta zenbait eremuren eta azpi-eremuren deitura eta izaera aldatu egin diren. Hala nola:

— «Ingurumena hobetzeko» D2 eremuan, mantendu egiten da Motondo D.2.2. (orain D.2.1) azpi-eremu zaharra, ingurumena hobetzeko D.2.2. eremua gehituta (itsasertza babestu eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana). «Basoa berritzeko eremua» eta «paisaia lehengoratzeko area» CS 7 eta CS 8 baldintza gainjarri bihurtzen dira, beren deitura mantenduta (II.1 eta IV.1 planoak).

— Ori aibaia desagertu egiten da F.2 «espazio libreen sistema orokorra, ubideak» gisa eta D.5 «ubideak eta horien babes tarteak» eremu bihurtzen da.

— Kendu egiten da «kanpina jar daitekeen eremua» deituriko baldintza gainjarria, lurzoru urbanizaezineko araudiak araututako erabilera berezia baita; araudi horrek finkatu egiten du egungo kanpina eta arautu egiten du mota horretako instalazio berriak jartzeko aukera.



— *Elementu berri gisa CS 4 «kutsatuta egon daitezkeen lurzorua» deituriko baldintza gainjarria eransten da.*

— *D.6.6. «Oriako hezegunea» deituriko baldintza gainjarriak CS 6 «Natura 2000 Europako Sare Ekologikoko espazio naturala» deitura hartzen du, eta haren gainjartzea ubidearen zati batera eta Motondora mugatzen da orain.*

— *Erantsi egiten da CS 9 «zarata duten eremuak» deituriko baldintza gainjarri berria, alderdi hori arautzen duen araudia Hiri Antolaketako Arauak behin betiko onartu ondorengo baita.*

Hiri lurzoruaren kategorizazioak lehendik dauden bi kategoriak islatzen ditu, «finkatu gabekoaren» bi azpi-kategoriak bereizita: Finkatutako urbanizaziorik ez dagoelako edota hura nahikoa ez delako; edo eraikigarritasun haztatua handitu delako; eta adierazten da finkatutako hiri lurzoruko edozein eremu finkatu gabeko eremu izatera igaro daitekeela eraikigarritasun haztatua handitzearen ondorioz. Azpi-kategorien mugaketa III.2 planoan islatzen da modu grafikoan.

Dokumentua, modu formalean, honela dago osatuta: Memoria, hirigintzako araudiak, azterketa ekonomikoa, jarduketa-programa eta planoak.

Udal fasean, plan orokorraren espedienteak ondoren nabarmentzen diren izapidetzeak izan ditu:

Nahitaezko txostenak egin ondoren, Udal Batzarrak hasierako onarpena eman zion plan orokorrari 2011ko apirilaren 6an. Espedientea jendaurrean ikusgai egon zen denboran ez zen alegaziorik aurkeztu.

Geroago, 2011ko apirilaren 14an, Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak adierazi zuen gaiari buruz egindako oharrak bete egin behar direla.

Dokumentuak, aldi berean, Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldeko iritzia jaso zuen, 2011ko martxoaren 21eko txostenaren bidez.

Udal Batzarrak, 2011ko maiatzaren 17an, behin-behinekoz onartu zuen dokumentua, bere edukia egokitzeko eta Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiaren txostenean adierazitako baldintzak bertan jasotzeko baldintzarekin.

Hori kontuan hartuta, plana idatzi duen taldeak dokumentu osagarri bat idatzi zuen 2011ko ekainean (espedienteari eransten zaio).



Ingurumen ebaluazio estrategikoaren ondorioetarako, Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren 2011ko urriaren 5eko txostenean irizten da ingurumenean ez dela Hiri Antolaketako Arauen tramitazioak jada ebaluatutakoez bestelako eraginik gertatzen; horiek horrela, plan orokorrarentzat baliozkoak eta aplikagarriak izaten jarraitzen dute neurri babesleak eta zuzentzaileak eta horiei buruzko ingurumen eraginaren baterako ebaluazioko zaintza programa.

Gainera, espediente administratiboan jasota dago Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren 2011ko abenduaren 13ko txostena, zeinetan adierazten den udalerrian lehendik dauden sareak nahikoak direla aurreikusitako urbanizazio berrien eskaerari aurre egin ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen 2011ko abenduaren 15eko nahitaezko txostenean eskatzen da baldintza lotesle zehatz - batzuk jasotzea, arlo hauei buruzkoak: Lurralde antolaketa, kultura ondarea, landa garapena, ura eta bioaniztasuna eta ingurumen esku-hartzea.

Era berean, txosten horrekin batera doaz Eusko Jaurlaritzako hainbat sail edo erakundek eginiko txostenak, arlo hauei buruzkoak: Kultura ondarea, landa garapena, ura, bioaniztasuna eta ingurumen esku-hartzea, etxebizitza eta portuak.

Txosten hori aztertuta, bigarren dokumentu osagarria idatzi zen 2011ko abenduan, Plan Orokorrean egin beharreko doiketak jasotzen dituen, hartara Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eskakizunak bete ahal izateko.

Azkenik, 2012ko urtarrilaren 12an jaso zen Gipuzkoako Foru Aldundian aipatutako espedientea, behin betiko onartzeko eskatuz.

Geroago, Orio Udalak jakinarazi zuen, alde batetik, Udal Batzarrak 2012ko urtarrilaren 30ean onartu zuela 2011ko abenduko bigarren dokumentu osagarria eta, bestetik, dokumentu hori Plan Orokorrearen espedienteari gehitu zitzaiola.

Gero, Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak, 2012ko martxoaren 20an, jakinarazi du konpondu direla dokumentu osagarrian, aurreko txostenean adierazitako akatsak, betiere, kontuan hartzen badira eginiko xehetasunak, ondorengo hauek:

1. II.1, II.2, II.3 eta III.1 planoak: Ez da zuzena itsas ertzaren lerroaren adierazpena, ez eta itsas bazterreko herri jabariaren mugaketa lerroarena eta babes zortasuna daukan eremua mugatzen duen lerroarena ere, aurreko txostenean adierazitako zehaztugabetasun txiki batzuk baitituzte.



2. a) *Mutiozabal 2. hirigintza eremua: Ohartarazten da ezen itsas bazterreko herri jabarian edo babes zortasunean dauden obrei edo instalazioei Kosta Legeko laugarren xedapen iragankorra aplikatu behar zaiela, ez xedapen gehigarria, eta hori zuzendu egin behar da; area horretan eraikinak egiteko edo lehendik daudenak ordeztzeko aurreikusitako xehetasun azterlanak izapidetzerakoan eta onartzerakoan Kosta Legeko 112.a) eta 117 artikuluetan aipatzen den nahitaezko txostena eskatu behar dela; eta aurreko txostenean eskatutakoaren arabera, interpretazio desegokiak saihesteko eraikin berriak modu argiangoan adierazi behar direla, lehendik daudenetik bereizi daitezten.*

b) *Aramendi Toki Alaia 5. hirigintza eremua: Ohartarazten da ezen lehendik dauden eraikinak finkatzerakoan, sestra azpian bi solairu egitea baimenduz, kontuan hartu behar dela haiek ez direla egingo, inolaz ere, itsas bazterreko herri jabarian, ez eta babes zortasunean ere.*

c) *Txurruka 13. hirigintza eremua: Ohartarazten da, nolana ere, aurreko txostenean adierazitakoaren arabera, argitu egin behar dela itsas bazterreko herri jabarian dauden eta baimenik ez duten eraikinen egoera zein den.*

d) *Cerámica Arocena 15. hirigintza eremua: Adierazten da ezen kontuan hartu behar dela lehendik dauden eraikinak eta instalazioak, itsas bazterreko herri jabariaren lurretan daudenak, Kosta Legeko laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren mende daudela.*

e) *Ortzaika 18. hirigintza eremua: Adierazten da ezen kontuan hartu behar dela babes zortasunean proposatutako erabilerak bateragarriak izan behar direla Kosta Legearen zehaztapenekin, aurreko txostenean adierazi zen bezala.*

f) *Botaleku 19. hirigintza eremua: Ohartarazten da ezen itsas bazterreko herri jabarian edo babes zortasunean dauden obrei edo instalazioei Kosta Legeko laugarren xedapen iragankorra aplikatu behar zaiela, ez xedapen gehigarria, eta hori zuzendu egin behar da.*

3. *Arau orokorretan: Eskatzen da ezen haietan jaso behar dela itsas bazterreko herri jabarian edo babes zortasunean dauden obrei edo instalazioei Kosta Legeko laugarren xedapen iragankorra aplikatu behar zaiela, ez xedapen gehigarria, eta hori zuzendu egin behar da.*

Azkenik, dokumentuaren edukia aztertuta, adierazi behar da Foru Aldundiko Lurralde Plangintzako Zerbitzuko zerbitzu teknikoek prestatutako txostenean irizten dela Orioko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren dokumentua zuzena dela eta bere baitan jasotzen dituela 2/2006 Legea egokitze hutsa den dokumentu bati eska dakizkion zehaztapenak eta beharrezkoa dela testu bategina egitea, honako hauek jasoko dituenak: Alde batetik, 2011ko ekainean idatzitako dokumentu osagarrian proposatutako aurreikuspenak, barne hartuta, Itsasertzaren eta Itsa-



soaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiaren 2012ko martxoaren 20ko txostenean adierazitako zehaztasunak; eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak eskatutako baldintza lotesleak betetze aldera 2011ko abenduan idatzitako bigarren dokumentu osagarrian jasotako proposamenak.

Hortaz, dokumentua behin betiko onartu behar da, Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiaren 2012ko martxoaren 20ko txostenean eskatutako xehetasunekin, eta Plan Orokorreko agiri desberdinetan jaso behar dira hura izapidetzean eginiko aldaketak, bereziki, Plan Orokorra behin-behinekoz onartu ondoren bere edukia lehenago aipatutako txostenetara egokitze aldera idatzi ziren 2011ko ekaineko eta abenduko dokumentu osagarrietan proposatutakoak.

Horrela, bada, aplikagarri den legeria ikusita, eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta gaiaz hitz egin ondoren, Diputatuen Kontseiluak,

ERABAKITZEN DU

Behin betiko onartzea 2011ko urtarrilean idatzitako Orioko Hiri Antolaketako Plan Orokorra, 2011ko ekaineko eta 2011ko abenduko dokumentu osagarrietan jasotako aldaketekin, eta Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiaren 2012ko martxoaren 20ko txostenean adierazitako xehetasunekin.

Plana argitaratu aurretik (Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuaren foru aginduaz egingo da), Orioko Udalak, hilabeteko epean, erabaki honen azalpen zatian adierazitako baldintzak betetzen dituen testu bategina onartu eta Foru Aldundira bidali behar du.

Alkateak hartzen du hitza eta, Bilduren izenean, honako idatzi hau irakurtzen du, hitzez hitz, emango duten botoa arrazoitzeko:

Plan orokorreko testu bateratuaren onarpenaren aurrean, Orioko Bilduk honako azalpena egin nahi du:

Esan dezakegu, gaurko plenoan hartuko den erabakiarekin amaiera emango zaiola 2003an abiatutako prozesu luze eta korapilatsu bati (hasieran Arau Subsidiarioen figura zuena).

Herritarrekin konpartitu gabeko diagnosi batean oinarritu zen dokumentuaren aurre lana. Tartean herritar eta eragile ugari parte hartutako agenda 21ren prozesu konpartitua garatu zen, bertan jasotako ondorio eta ekarpenak, Arau Subsidiarioen dokumentuan txertatzea eskatu zen espresuki. Baina garai horretako udal gobernuak ez zion jaramonik egin eskaera honi.



Etxebizitza arazoa, kutur aisialdi edo zerbitzu ekipamendu beharrak... zer hobeago bertan bizi eta gaiak gertutik ezagutzen zuten herritarren partaidetza guzti hauei modu egokian aurre egiteko?

Ondoren prozedura edo dokumentazio akatsak zirela eta, arazo juridikoak etorri dira. Arau Subsidiarioak baliogabetzeak ez zuen dokumentu soil bati bakarrik eragiten, jadanik martxan dauden planeamenduek ere (Munto, Dike ...) egoera juridiko larrian gelditzen ziren. Egindako akatsak sortu duen arazo larriari aurre egiteko, Arau Subsidiarioko dokumentuan oinarrituta Plan Orokorreko testu egokitua abiatu zen.

Aurrez aipatutako arrazoiengatik, Bilduko talde politikoa oso kritikoa da azken onarpena ematera goazen dokumentu honekiko. Baina jabetzen gera ez onartzeak sortuko lukeen larritasuna, beraz gure baiezkoa emango diogu.

Honekin amaiera ematen diegu duela hamar urte abiatutako prozesuari; baina aitortzen dugu garai hartako arazoak hor jarraitzen dutela, eta horren aurrean ahalik eta azkarren herri partaidetzan oinarrituko den Plan Orokor berri bat martxan abiatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 8ko bilkuran hartutako erabakia betez, eta Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko ekainaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren Testu Bategina. Testua Orioko Udalak sustatu du eta Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak idatzi dute.

2.- BIDALTZEA Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Departamentura udalbatzarraren erabaki hau kreditatzen duen ziurtagiri administratiboaren lau kopia, udal idazkariak sinatuta, behar bezala diligentziatutako 'Orioko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren Testu Bategina' izeneko dokumentu urbanistikoarekin batera, Aldundiak beharrezko tramite legal eta arauzkoak egin ditzan eta, ondoren, Testu Bategin hori onar dezan eta, ondorioz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2.- DAGOZKION UDALBATZAR ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRIGUNE HISTORIKOAREN PLAN BEREZIAREN 3. HIRIGINTZA JARDUKETAREN (KALE NAGUSIA) GARAPENARI BURUZ.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udaleko Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko uztailaren 5ean egindako bilkuran diktaminatu dituen proposamenak honako hauek dira:

- 1.- *Indarririk gabe uztea Kale Nagusian sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatu adjudikatzeko zozketa publikoari dagokion prozedura, kontuan hartuta eskabideen kopurua txikiagoa izan dela eskainitako etxebizitzena baino*
- 2.- *Lehen onarpena ematea Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. hirigintza-jarduketaren (Kale Nagusia) garapen urbanistikoari dagokion hitzarmen urbanistikoaren aldaketari.*
- 3.- *Aldatzea Orioko Kale Nagusiko sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatuen behin-behineko kalifikazioa.*
- 4.- *Onartzea etxebizitza adjudikatzeko aukera ematea dagokion araudian ezarritako baldintzak betetzen dituen edozeini, Orioko Kale Nagusiko 6 udal etxebizitza tasaturen sustapena dela-eta.*

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango duela gai honetan, beren iritziz 25 etxebizitzek 'udal etxebizitza tasatu' kalifikazioa izaten segitu beharko luketelako, horietako batzuk (19) etxebizitza libre bihurtzeko partez. EAJren ustez, etxebizitza horiek 'etxebizitza babestu' kalifikazioa galtzen badute, jabeek aukera izango dute inolako arazorik gabe salerosteko. Bestalde, Jon Redondok dio, proposamen horiek onartzen badira, Udalak enpresa sustatzailearen *segidismoa* egingo duela eta hori ez zaiola ondo iruditzen, nahiz eta ulertzen duen enpresa sustatzaileak hori defendatzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko uztailaren 5ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsorro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberría (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA ondoko proposamenak, erabakiaren azalpenean jasota dauden bezalaxe:

- 1.- *Indarririk gabe uztea Kale Nagusian sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatu adjudikatzeko zozketa publikoari dagokion prozedura, kontuan hartuta eskabideen kopurua txikiagoa izan dela eskainitako etxebizitzena baino*
- 2.- *Lehen onarpena ematea Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. hirigintza-jarduketaren (Kale Nagusia) garapen urbanistikoari dagokion hitzarmen urbanistikoaren aldaketari.*



- 3.- Aldatzea Orioko Kale Nagusiko sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatuen behin-behineko kalifikazioa.
- 4.- Onartzea etxebizitza adjudikatzeko aukera ematea dagokion araudian ezarritako baldintzak betetzen dituen edozeini, Orioko Kale Nagusiko 6 udal etxebizitza tasaturen sustapena dela-eta.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRIKO JAIEGUNA 2013. URTERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko uztailaren 5ean egindako bilkuran diktaminatu du Orioko herriko jaieguna 2013. urterako ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko uztailaren 5ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2013. urtean ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuperatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren maiatzaren 15eko 75/2012 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez; dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2013. urterako.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EAJ udal talde politikoak aurkeztu duen hondakinen kudeaketari buruzko mozioak honela dio, hitzez hitz:

2012ko ekainaren 5ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Diputatuak, aldi berean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzio Presidente denak, "Degradatutako guneak berritu eta berreskuratzeko estabilizatutako zabor-fardoen biltegi kontrolatuak" sortzea planteatzen zuen dokumentua aurkeztu zuen Batzar Nagusietan; 2014rako ixtea aurreikusten diren gaur egungo zabortegeiak ordezkatzeko eta Gipuzkoako hiri-hondakin solidoen kudeaketa-sistemaren amaiera gisa.



“Biltegi” horietan, hondakinak aldez aurretik tratatu ondorengo errefusetik geratzen dena (batez ere Tratamendu Mekaniko Biologikoaren ondorengoa), hau da, birziklatu eta konpostatu ezin daitekeen materiala lurperatzea aurreikusi dute. Dokumentu horretan bertan aitortzen da, lurperatzeko den material horrek “%10a baino gutxiagoko material biodegradagarria pisuan eta ahalik eta material birziklagarri gutxien duela”.

Dokumentuan jasotzen denez, “abantailen” artean, “IA LIXIBIATURIK EZ DAGOELA ETA BIODEGRADAGARRI DIRENAK DESKONPOSAKETA MOTELEKO PROZESUA DUTE”.

Dokumentuaren arabera helbururik nagusia zera da, gaur egungo zabortegeiak itxi eta bigarren mailako hondakinak botatzeko gune berriak zabaltzea. 3/1998 LEGEak, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrak, III. IDAZPURUAN, ingurugiroan eragina duten jardueren antolamendua arautzen du. IV.KAPITULUA. Hondakinak (berria ez dena, baina gure oinarritzko legeria dena) eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak hondakinak deuseztatzeko arauak ematen dituzte, zabortegeietan biltzeko eta betelanak egiteko. Legedi hori ez aipatzea oso larritzat jotzen dugu, zabortegei eta betelanetarako aplikatu behar den legedia denez.

49/2009 dekretuaren arabera, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenaren arabera, hondakinak lurpean edo lur azalean gordeta hondakin horiek ezabatzeko instalazioa da hondakindegia. Bigarren mailako hondakinak botatzea, izenak berak esaten duen bezala, hondakinak botatzea da. Hondakinak baldin badira, hondakinak dira eta lur azalean biltzen badira, hondakindegia batean biltzen dira. Eta Europatik hondakindegia horiek ixteko epea dago.

Hori guztia ikusita, gaur egun dauden zabortegeiak ixteko betelana eginez egin nahi da, eta Gipuzkoan dauden harrobi eta meategiak hondakindegia berri bihurtuz. Bartzelonako Cerdanyola del Vallés herritik “inportatutako” esperientzia, zeinak gizartearen eta talde ekologisten aldetiko KONTRAKO arbuio argi eta garbia izan zuen eta duen gaur egun.

Orion honako hau dago: Txoriatzeko meategia dago, N634 errepidearen 15.000 p.kn gutxi gora behera. Diputazioaren agiriak planteatzen duena ikusita, berreskuratu beharreko degradatutako gune horien kokapena zehazten ez denez, eta esandako gune horietan hondakin-motaren bat lurperatu litekeen aukeraren aurrean, Orioko Udalak, honako hau

ONARTZEN DU



LEHENIK.- Harrobi eta meategiak, materiala ateratzeko jarduna izan ala ez, “estabilizatutako zabor- fardoan biltegi kontrolatu” gisa ez erabiltzeko aldarrikatzea.

BIGARRENIK.- Orioko herrian dauden harrobi edota gune degradatuak barneratu nahiko lituzkeen edonolako Plan edota Araudiei aurre egiteko alegazioak aurkezteko Alkatea ahalmentzea, Orioko herrian hondakinen isurketa eta lurperaketa ekiditzeko helburuarekin.

HIRUGARRENIK.- Urola-Kostako Udal Elkarteko Lehendakariari, Urteta zabortegia ixteko erabakia hartzeko eskatzea aurreikusitako epeetan eta bailara mailan inolako beste zabortegirik ez irekitzeko eman beharreko pausuak emateko eskaria egitea.

Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, Orain taldearen izenean, eta adierazten du bere talde politikoak ez duela bozketan parte hartuko. Beren erabakia arrazoitzeko, honako idatzia irakurtzen du, hitzez hitz:

Orion gai hau eztabaidatzeko mahai bat sortu da Orioko hiru alderdiak eta Zero Zabor bertan daudelarik. Gure ustez zaborren inguruan arrakasta lortzeko modu bakarra elkarrizketaren bitartez adostasuna lortzea da.

Mahai hori da, hemen planteatzen den arazoa aztertzeko foroa. Ez dugu gai hau politizatu nahi, beraz BILDUK eta EAJk aurkeztu dizkiguten mozio proposamen eta mozioei erantzun berdina eman diogu: mahai horretatik pasatzen ez den bitartean guk ez dugula bozkarik emango.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsororo (Bildu) eta Saizar (Bildu), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA EAJ udal talde politikoak aurkeztu duen hondakinen kudeaketari buruzko mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Alkateak hartzen du hitza eta honako idatzia irakurtzen du, hitzez hitz, Bildu talde politikoak emandako kontrako botoa azaltzeko:

- Gipuzkoan Zero Zabor politiken alde gaudela azpimarratu behar du Orioko Bilduk, Zero Zabor politikarako bidean GFAk aurkeztutako plangintza onartzen dugula eta guztiz babesten adierazi behar dugu.



-Errausketen eta zabortegei kutsakorren aroa bukatu da. Gaur egun hondakinen %70a zabortegei kutsakorretara bidaltzen dugu eta honek bukatu egin behar du. Europatik behartuta gaudelako.

-Prebentzioan, berrerabilpenean eta birziklatzean oinarritutako konponbide iraunkorra behar dugu, hori da GFAk aurkeztu duena hain zuzen ere.

- Errefusategi edo hondakindegia irekitzea aurrakusten du GFaren planak Hondakindegia depositu kontrolatuak izango dira, hondakin egonkortuekin (ez toxikoekin) elikatuko dira, eta espazio degradatuak leheneratu edo berreskuratzeko erabiliko dira (harrobiak), ingurumen inpaktua zeharo gutxituz.

Egungo zabortegeiak itxi eta birziklatu ezin diren eta aurretik egonkortu diren hondakinak botatzeko espazio berriak dira.

Ondorio negatiborik ez dute erraustegiarekin alderatuta. Ezin direla konparatu pentsatzen dugu.

-Korrespontsabilitatea: sortzen duenak esku hartu behar du modu batera edo bestera kudeaketan, herritarrek inplikatu, derrigortu behar dira, hau ezta borondate kontua.

Amaia Dorronsoro zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du oso kontuan hartu behar dela 'Orio Zero Zabor' kolektiboak egindako lana. Segidan, Noemi Ostolaza zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak ez duela nahi hondakindegirik Orion eta adierazten du, baita ere, EAJk parte hartu izan duela 'Orio Zero Zabor' kolektiboak egindako bilera batzuetan.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Gai-zerrendatik kanpo, udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du, alde aurretik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz], urgentziazkotzat jo ondoren:

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ TALDE POLITIKOAK SUSTATUTAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONAL BAT, ORIO 'ALZHEIMERRAREKIN SOLIDARIOA DEN HERRIA' IZENDATUZ

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EAJ udal talde politikoak sustatu duen adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:



Alzheimerraren eragina 3,5 miloi pertsonen pairatzen dute estatu mailan, gaixoak eta hauek zaindu behar dituzten senideak kontutan hartuta. Izan ere, Alzheimerraren arazoa osasun eta gizarte mailan ematen da, familia delarik zama handia beregain hartzen duena.

Jakitun gara oraindik ez dagoela gaitzari eta honek eragiten dituen ondorioei aurre egiteko edo saihesteko tratamendu eraginkorrik.

Jakitun gara datozen hogeitun urteetan gaitzaren prebalentzia bikoiztu egingo dela, batez ere, biztanleriaren bizi iraupena handitu delako.

Jakitun gara Alzheimerrak, modu zuzenean edo zeharka, familiei urtero 30.000€tako gastua sortzen diela

Jakitun gara gaixotasuna pairatzen duten pertsona eta hauen familiei sortzen zaizkien beharrak asetzeko baliabide sozio-sanitario espezifikoko gutxi daudela.

Jakitun gara ez dagoela gaixotasun honen kalteei aurre egiteko plan zehatz bat Europako Legebiltzarrak, Europako Komisioak eta Munduko Osasun Erakundeak zentzun honetan eskakizunak egin dituzten arren.

Jakitun gara, Orioko biztanleria ere zahartzen ari dela eta horrek demenzia bat (Alzheimer tipokoa batez ere) pairatzeko arriskua dakarrela.

Honegatik guztiagatik, Orioko Udalak honelako garrantzia duen arazo baten aurrean duen kezka plazaratu nahi du, "Alzheimerrarekin Solidarioa den Herria" bezala deklaraturaz.

Modu honetara, adierazpen instituzional honekin, Orioko Udalak beste herrientzat eredu izan nahi du eta, baita ere, gizarte, erakunde eta politikariei, sozio sanitarioa den, arazo larri honen inguruan egiten diren sentsibilizazio eta kontzientziazko kanpainak babestu.

Orio, "Alzheimerrarekin solidarioa den herria" deklaraturaz, Udalak Alzheimerraren Aliantzak bultzatzen duen ekimena babestu nahi du, non Alzheimerraren Estatu Politika bat martxan jartzea eskatzen den.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EAJ udal talde politikoak sustatutako Udalaren adierazpen instituzionala, Orio 'Alzheimerrarekin solidarioa den herria' izendaturaz, goian jasota dagoen bezalaxe.



ORIOKUDALA

Udalbatzarraren ohiko bilkura
2012/07/10

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hondakinen gestioari buruz iritzia emateko hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,